

Oarsoaldean lan eta bizitzeko proposamen zehatzak egiteko ordua iritsi da, eta [Oarsoaldea Garapen Agentzia egiten ari den plan estrategikoa](#) horretarako aukera ezin hobea da. 2025. urtera begira jarritz, argitaratzen joango garen ekarpen hauetan **lelo bat eta sei proposamen zehatz** egin nahi ditugu.

Plan estrategikoko eztabaida gehienetan agertu den gaia izan da lankidetzaren edo elkarlanarena. Gabezia bezala baino, denok aukera bezala ikusten dugu. Hobetu beharreko ikasgai bezala eta, aldi berean, abantaila eta balio kate berriak eraikitze gaitasuna duen mekanismo bezala. Bide horretan, Euskal Herriko lurralde ezberdinetan ezarri eta landu daitezkeen lehen proposamen teoriko bat ere egin dugu, **“Herrigintza bizia, komun berriak sortzeko”**, izena duena, eta proposamen hauek egiteko oinarri izango dena. Horregatik eztabaidetatik eratorriko den plan estrategikorako leloa **lankidetzaren lurraldea** izatea proposatzen dugu.

Oarsoaldea buruan egin den testu bat izanik ere, beste lurralde eta etorkizun batzuk pentsatzeko balio dezakeen testua ere bada.

Lankidetzaren lurraldea: leloak oraingo errealitatea islatzen ez badu ere, etorkizuneko argi bat markatzen du, eragile ezberdinen arteko elkarlanean eta horiek sortuko dituzten tresnak garatzearen beharrean jartzen du fokua. Enpresa arteko lankidetzaren, publiko-komunitate-kooperatibo elkarlana sustatzea, formazio-enpresa artekoa, formazio eragile ezberdinen arteko hartu-emanak, jendarte egituren arteko elkartasun sareak osatzea....

Lurraldea: fokua Oarsoaldean jartzen badu ere, bertara mugatzen ez duelako. Hau da, honen gaitasun eta behar endogenoek gidatutako dinamika bat behar du izan, baina lurralde ikuspegi ireki baten bidez kanporako begirada batekin. Ondoan, Donostia-Bidasoa-Nafarroa iparraldea; zabalago Iparraldea-Gipuzkoa begiratzen du eta hortik kanpo Akitania-EH osotik, mundura irekitzeko gaitasuna.

Lurralde hitzak ere Oarsoaldea bere zabaltasun osoan ulertzeko aukera eskaintzen du, baina aldi berean konkretioa ere badu. Oarsoaldea osatzen duten herrien arteko sinergiak beharrezko egiten dituen bitartean, herri bakoitzari espezializatzeko aukera ere eskaintzen dion terminoa ere izan daiteke, eta beraz egokia definitu nahi dugun kontzeptu eraikitzaile honentzat.

Hau beraz leloa, eta datozen egunetan argitaratuko ditugu sei proposamen zehatz, garapena beharrezko dutenak, baina bidea egiten hasteko akuilu izan daitezkeenak; beti ere, plan estrategikoak definitutako lan lerroei lotuta eta bereziki lan eta enpleguaren sorkuntzari atxikita. Izan zuzenean lana sortzeko tresnak direlako, edota berau sortu ahal izateko aukerak irekitzen dituztelako. Guk landutako proposamenen inguruan eztabaidatu nahi genuke, ideia berriak jaso edo gureak osatu eta hobetzeko, animatu iruzkinetan idatzi edo gurekin kontaktuan jartzera. Jarraitu elkarrizketa.

Proposamenak

1. [Unibertsitate digitalaren aukera Oarsoaldean.](#)
2. [Teknologia auditoriak eta zerbitzu aurreratuen eskaintza Oarsoaldean.](#)
3. [Ekintzaile Kooperatiba\(k\) Oarsoaldean.](#)
4. [Laborategi teknosozialak Oarsoaldean.](#)
5. [Pentsatuz lurraldetik elikatu Oarsoaldean.](#)
6. [Oarsoaldeko Lankidetzaren Ekonomikorako Sarea - OLES.](#)

Egileak: [Gorka Julio](#) eta [Beñat Irasuegi](#)

Irudia:

<https://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/thumb/a/a3/Pasaia-Spain-Christoph-Abele-2004.jpg/800px-Pasaia-Spain-Christoph-Abele-2004.jpg>